


# marante

CULTURA OCIO COMUNICACIÓN



Aiora Jakak eta Koro Navarrok 'Independentzien eguzkiak' eta 'Arrabioen gerra' liburuak itzuli dituzte, hurrenez hurren.

## “Agintearen aurka” idatzitako literatura unibertsalaren bi liburu, lehen aldiz euskaraz

Koro Navarrok 'Arrabioen gerra' eleberria itzuli du; Aiora Jakak, aldiz, 'Independentzien eguzkiak'

✎ Harri X. Fernández  
 📍 Iker Azurmendi

**DONOSTIA** – Igelak eta Ereinek Literatura Unibertsala bildumako 187. eta 188. zenbakiak kaleratu berri dituzte, Ahmadou Kouroumaren *Independentzien eguzkiak* eta Karel Capeken *Arrabioen gerra*, hurrenez hurren. Gurean “oso ezagunak ez diren” bi lan hauek atzo aurkeztu zituzten, Donostiako Liburutegi Nagusian. Bertan izan ziren Erein eta Igelaren ordezkari Inazio Mujika Iraola, Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretuen Elkarteko zuzendari

Manu López, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sustapenerako zuzendari Aitziber Atorrasagasti, Koro Navarrok eta Aiora Jaka itzultzaileekin batera.

Berariaz bi lanen artean antzekotasunik bilatu ez badute ere, zenbait paralelismo nabari badituzte. Biak ala biak “agintearen aurka” idatzitako eleberriak dira. Hizkuntzaren aldetik, gainera, “askatasun” handiko prosa darabilte. *Arrabioen gerra*ren kasuan, jatorriz txekieraz idatzi zuen Capekek; Kouroumak, aldiz, malinkerez pentsatu arren, hizkuntza frantsesa erabili zuen *Independentzien eguzkiak* idazterako garaian.

**‘Arrabioen gerra’ eleberri antifaxista da; ‘Independentzien eguzkiak’, aldiz, Afrikako post-kolonialismoa salatzen du**

Azkenik, bi liburuek badute hirugarren kidetasun bat: moduren batera edo bestera, “hormaren beste aldean” ezagunak izan dira. Capekena Bigarren Mundu Gerraren osteko Soudete eta Poloniako hezkuntza sisteman asko zabalduko parabola izan da. Kouroumarena, berriz, kolonialismoak eta, bereziki, post-kolonialismoak Afrika beltzean izandako bilakaera negargarriaren eredu-tzat jo izan da.

**“BI ‘BEST-SELLER’** “Bi liburuek *best-seller* beharko lukete izan, zoragarriak dira”, esan zuen Navarrok, tes-

tuen kalitate azpimarragarriari erreferentzia eginez. Capekek idatzitako azken eleberria izan zen, hain zuzen ere, Navarrok itzuli duena. Idazle txekiarrak 1936an eman zuen argitara. Handik bi urtera, naziek Soudetak inbaditu baino zertxobait lehenago, Pragan zendu zen idazlea, 48 urte besterik ez zituela. Zientzia-fikzioan espezializatutako autorea izan zen. Izan ere, hari zor zaio “robot” terminoa, berak erabili baitzuen estreinakoz 1920. urtean idatzitako *R.U.R. Erroboten lantegia* antzezlanean.

*Arrabioen gerra* Karel Capeken